

Gautegiz-Arteaga.

Ita bat.
Ia onen 20'an, goxeko seirak al-dian, il zan Ormetzeko etxandera Ozamiz'tar Julene, gure adizkide eta aberkide on Lamikiz'tar Mikel'en amagiñareba. Andra ongiñe eta zer-esan gitxi bere bizijan emon dabena. (G. B.) Badaki ba bere sendi mañiak gu be lagun gayakiyuezala gaur dauken atsekabe andiyan.

¡Al Ija aiztu jatan. Efi gustiya iñan zan bere obratze eta ertzadona' ko il-otoizketa edefetan, erakutsirik onetaraxe, sendijari, efi guztijak bere amari eutson mafasun berarizkua.

Ezkondeyak.
Igande-gox'eko jaupa nagositan entzun gebazan Sota eta Aznar'en andolatak lankide Alegria'tar Andoni, eta Agife'tar Miren Karmele, Bilbao'ko Saloki entsutetsu bateko idazkiñdari neskatiñ zintsuba'ren ezkontziazkoko bigafen elix-deyak. Zorionak, Andoni.

Ereño'tarai.
Efi onetako abertzalari neure zorian beroena damotsate igandeko autezkundiagatik. Ausi ezpadozube, ikara egiñ eta afakalatuta itxi dozubelako Atxosteko «afi» nagosija. Makiñatxu bat malukada artun-da be, osorik irauñ dau orañ arte; baña oinguan, U. G. T.'ko langilerik onenak egindako sendari ta gusti be, zuben atara dozuben abefi-maluak lenengo otsian ikara eragiñ dautso... Gofu eta zuri bat eginda ¿? Orixe da, iru edo lau metro afigatik, Judas'ek ogetamar dirugatik egin ebana ber-egitue... Bakixube zer diñodan.

Kortazubitarai.
Onak otera, zuri eta gofi danak bat egin ba-lebe be, batu ebezan autarkijakin ez-euken bildufik, euren bosta'k atara, eta gelditzen jakezanakiñ zuri-gofijak adufetan ipinteño be. Etziran asartu zazpiren bila juaten, zuri-gofijok, beste efi askotan lez, alkefegaz ezkonduko ete-ziralako bildufa eta zufu-mufua egozalako. ¡Eztan ibili urun ezkontza nabarmen au! Edo, obeto eateko, eintzekotzat eguan, ako, igasi dan igande-zortzi, Ereño'n mitiñe emonda, Kortazubi'n be emoteko asmoz etorzen margariño-belbilai bitxabal'aren erdira urtenda gixon-baltz bateg: «¡¡Adelante! ¡Continuar adelante; que aquí se ha hecho el pastel más vergonzoso que se ha conocido...» asafez esan eutsenien.

Orduan ezkontzia eginda eyeguan. Eta gero batenbateg «dibortzijua» eskatu edo... ezkakigu zer jazo dan. Gauzia da ze «pastel» ori gofijek jan dabela; eta zuriyek ago-bete azufegaz geldiñu dirala...

Ofez zuriyok geldi egon balire, abertzaliak saspirek atarako ebezan; eta gofirik etzan sartuko udalian. Gofijek urtetien efue zuriyok dauke ba. Ofeik egin dabe lenagoko baratañen txakufena: ez jan, ez jaten itxi.

BETOZTIÑ

Marin eta Goikolea

(Ien Apellaniz y C.ª)

Santugintza; Alfara, Pulpito, Konfesonario ta elelzetarako beste zul-lanak

Castilla. 31 VICTORIA

Mañaria.

Igandean efi ontan egin zan autezkundiaren gurendia, beste alderdikuentzat ixan zan. Eta tamal-tamalez esan biar dot, geure artekuen efuz galduduala. Lau abertzale baño geyagok euren autarkija geure alderdira emon ezebelako. Beste alderdi-kuak ba, iru notiñen autarkijak geyago ixan ezebelako irebazi eben eta. Beraz, amabost autarkigatik.

Len afaturiko abertzale ofek, euren autarkijakaz lagundu baleuskube, bost ziñegotzi eskier atarako genduzan. Baña, efi txikijetan safitan jazoten dana, urlijak au ta ori egin dautsa, berendijagaz asafetxua daukat, eta sandijak otera, enau aintzakotzat artu ta abar, esaten dabe.

Onango gauzakaz asi ezker, abefijagatik ezin geinke ezer egin. Geure abertzaletasunak ori baño senduagoak ixan biar dau; gustijok batera zintzo jokata, abefija laster be laster azkatu dagigun be.

Eriyotzak.
Lengo astian il ziran «Kurutze-Santu»ko Kepa gixona ta «Insuntza»ko Afizabalaga'tar Kepe anderea. Jaunak zeruan euki begiz.

MAÑARIKO

Lekeatio.

Ondo-etori.
Biotzez damotzut, «Axedera», ongi-etofia, eta uri aunetako bafiak safitxu bidali dagikezuala urte askotan EKIN'era, oraingoxe gatz eta jasaz.

Afantsu.
Polito dabiz gure itxastafak oraingoan, sarietako gau-afantzuarai eskafak.

Lugintza.
Nekazariak be zerbait poztu dira egin daben euri gozoagaz. Orain Marka Deunak lez, geroago Ixidor Deunak lagunduko al-deutsie.

Auteskunderak.
Ederto gizabidean ibili dira gure auzotar Ispaster, Amoroto ta Mendexa'ko basefitar zintzoak. Erakutsi edefa, itsuturik dabiltzan Euskalefaren seme galduentzat. ¡Aufera, ta agure-antzeko umeakaitik ez kezkatu.

ERI

Ea.

Auteskundiak.

Gentzatzu eta alaitzu, igaro zan egun ori efi onetan, bederatzzi ziñegotzi abertzale autuaz. Ikusgafi edefa benetan igandekua, gixon da emakume, zar ta gaste, alkartuta autarkija botaten; senafak emastiakiñ, guraruak seme-alabakiñ, ugesabandrak mirabiakin... danak alkarturik, ba danetarikuekaz, egiten da abefija, ta gauza zuzena da, danok, abefi alde lan egitia. Zorionak batez be geure emakumieri, ba gauza bafi-bafi bat egin dogu, eta ufenguan egiteko ez daukagu lotsarik.

Lenengo Jaun artzia.
Deun Jon Ugutz txadonan amaika neska mutikotzuk egiñ eben. Zorionak ume ta gurasueri eta safi Jauna artu, umetxu matiok, Josu umia da gure lagunik onena-ta.

Izpar baltza.
Igande goxian osansuntsu eta kementsu autarki lanetan iñardu on-

doren, ondoez batek jota, gaubian, Jaunak beraganatu dausku Eguen'tar Kepa abertzale zintzua. G. B.

Urte uruna.
Astelenian txadonkixun eder bategaz ospatu zan Miren Donea'ko txadonan Oñedea'tar M. Benture'n urte uruna. G. B. eta ildako bijon sendijari neure tamal agufa.

PRAISU'REN LOBIA

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekañe, 50 BILBAO

JANTZIAK
gizonentzako Teadoro-nian egingoitzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.
TOVALINA Y C.ª L. D.
SOMERA TT BILBAO
Lenengo oñian sarlukeria dendatik.

Eunak eta soñeko egiñak Zeara'tar Erupin
Cenderia 15 Bilbao

Eguñola Joslia
LEKEITIO'n eta BERMEO'n Urzelai-kalean 10'gn.
Bilbo'ra deitu ezker, noz nai yoango da. Hotel Arana (Bidebarrieta) edo «La Guipuzcoana» (Ledesma 6)
Oyalik onenak. Berekiziko artaziak

Natxitua.

Autezkundiok.
Auteskunde egunak egun lañijak ixan oi dira; baña ointzurenguk egundo bada baketsuak ixan doguz. Euzko-alderdi jeltzaliak atera dauz bederatzzi ziñegotzi edo konsejalak, «lutxa» bage, saspiregun eta irurogeta amar boto alde eta bat bere ez aurka, «blanko» bat edo bi ixan ezik. Ara emen kontzejalen ixenak.
Natxitu'tik. Argintxona'tar Santiago, Agire'tar Antolino, Kortabitarte'tar Jose Iñasio. Ea'tik. Olabafia'tar Bonifacio, Izuzta'tar Lukas, Txakar-tegi'tar Eusebio. Eta Bedaru'tik. Zarakondegi'tar Gregorio, Bilbao eta Ruiz'tar Julian. Euron ardurapian gelditzen da efija eta ainbat onduen zaindu dayela.

Eskontza.
Datofen astian eskontzen jaku geure efiko Lafauri'tar Enkarna, Ispaster'eko mutil eder bategaz. Uxafeko Mugiran alabia be laster egiten da, Bilbo'tar bategaz, eta aldi gitxi bafu beste eskontza bi ixango dira. Aufera mutiak; urte onak jatorkuz-da. Zorionak gustijori.

Dabiltsanak.
Egun batzuk geure artian igaroten Bilbao'tik geure adizkide eta efi-zale diran Alzaga'tar Josefa Antonia eta Ugafiza'tar Beniña, Intxausti'tar Felisa neskamiagaz; Jose Mari lengo albaieria bere afefia'gaz. Salaman-ka'tik Agife'tar Sabin. Itxas-ontzitik Latxiondo'tar Pedro. Bernagoiti'tik Orbe'tar Juan. Zorionak gustijori.

KURUTZE GANE

EGILBOR'TAR JON G. TA SEMIAK
AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n
Igali edo fruta ta basoko zugatzak. Landa, ta ortu-azijak. Zimaufak; ko-kuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskixunak.
Ortu ta barat-credubak.

Ereño.

Efi onetan notin gustiak dabiz batera ta bestera autezkundie dala ta eztala. Ain dabil berotasun aundia ze gabaz be txaidetik-txaide eta biderik-bide dabiz mutilok. Oin egon naz Ispaster'ko «Beti Alai»gaz eta diño ez bildur izateko geure etxian geuk aginduko dogula-ta, a bai dala zintzue.

Ain abestu:
Nik ikusten det ikustekue Ereño'ko efi txikian Ardi, basaurde ta otso dabiz Gustiak arlo batian. Gu efi zañak emen gabiltzaz Geure efiek zainduten Nai badabe be ofek ezтира Gure etxian sartuten.

Gure efia Euskal efia iñok ezin lei ukatu, abere ofek sartun ezteizen egin biogu zafatu: erkal aldeko bedar zantafak ein deiezala tragatu eta ez gure onurarekin euren buskantzak gizendu.

Eiten dituez autarkietan Al dituezan gustiak, Geure soluen eraiteko Bedar txafaren aziak. Konzienzirik ezteuke ofek Baña galantak eztiak Pozik daukaguz txupatzeko Eiten doguzan gustiak.

Gauza gustiak eginda gero «Esto es Demokrazia», Demokrazia barik ori dok Kardulatzaren azia. Azi ofegaz nai badozue Estaldu Euskal-efia zeuen ganetik eraingo dogu Beste asi bat obia.

Euzkotar onak eurak dakie Zelako azia erain Erkal artian Maketo azie Abertzaliak Euzkadin. Jaungoikuaren agindupian Nai dogu bizi eta il Gastelafak gastelan eta Guk gura dogu Euzkadin.

Gure izkuntza garbi-garbia Iñoz ezteitela galdud Jaungoiko ona ta lagi zafa Al diranian goraldud. Geure etxian euzkeraz eiten Nok egin lei ke gebendu? Gora Euzkadi didar eingogu Naiz da bizitzia kendu.

Gauza gustiak ekarten ditu Ludi onetan sasoiak Aspaldi ontan ekafi dituz Endredu edo nastiak,

Inguruetan ikusten diraz Sosolistuen abiak Arek topetan estu dabiltzaz Margarit zoragafiak.

Abertzaliok segi daiogun Gure elia gordeten Zoriontsuak izango gara Alako egunen bateu. Nasterik iñun eztogu biar Abere tartetik urten, Bedafa legez otsoren baten Iruntzi ez gagiezen.

Itzaren bat az izan liteke Baten bat iraindutia Nire gogoa ezta ori ta Gura dot parkatutia. Geiago barik gura genduke Gaurkue amaitutia Agur oragin Ereñotafak Ufengo baten obia.

AZKATU ARTE EREÑO

Forua.

Auteskunde ostian.
Gaur bafu nasai ta biotz atsegintzuzagaz aurkitzen gara Foru ta Euzkadi guztiko abertzaliok, auteskunde egunian ixan gendun garaitziagaitik. Eneban uste ixango geure Ama-Euzkadi'n deyarri, semiak ain ondo erantzungo eutzenik, baña bere negar malkoak ija euzko-seme guztijon biotzetara eldu ta samurtu dituzena ondo argiro ikusten dogu eta batez-bere emakumenak; ofexek dira ba, Euzkadi azkatu biar dabenak: amak diranak umiai Jaungoikoa gurtuten irakatsiaz batera euren benetako abefi bakafa maitatzen irakatsi, eta amak ez tiranai, neba eta neba ez tiranai, euren itz samufagaz biotzak samurtu eta abefi maitasuna bere bafurano sartugaz. Ta gaur emakumak lan onetzaz ikusten doguzanlian ziur esan geinke Euzkadi lotuta dauken lokafi mailak afakalatu dirala, eta eguraldi asko baño len osoro azkatuta geldiñu dala. Ia ba, emakumak, jafai aufera aspertu barik artun dozuen bide eder ofetatik, eta laster loturik dagon amak bere besoak zabaldurik etofi ta besarkatu ta laztanduko gaituz, eta bere beso artian azke-azkerik zorijontzu b'xiko gara. ¡Aufera emakumak!

Naskaldija.
Aste gurena sendi ondoan igaro ondoren, Gazteiz'era juan dira Ufutiñ tar Karla ta Argatxa'tar Joseba, ikasle mutiak. Ia ba, mutiak, ondo baliatu geldiñen yatzuezan egun labufak, eta asko ikastia opau dauztuet.

Nabarniz'era.
Datofen igandian Gernika'ko «Tx-



¡Itxasontzijen jabe ala Itxasketa-Bazkunen bateko bazkide ete zara?
¿Zeure salkariak iñora bidaltzen ete dozuz itxasoz?
¿Zeure ekintzarako ala salostetxerako salkaririk itxasoz iñondik artzen ete dozu?
Izan leyezan afiskuetaz, gitxi ordainduta, eskier ixan gura bazara; okefik, galtzerik dabenetan, laster eta zuzen, yaotzuna artu gura badozu, zeure ogitukual.

“La Polar” Eskier-Bazkunan

Bilbo'n Hurtado de Amezaga 8—Ufutzikifia 9797

eskiertu dagiezala agindu.
Bazkun au Euzko-Efijan sortuaz ganera, geure Erian geyen itxas-afiskuak eskiertzen dauzadana.

BANCO DEL COMERCIO

GRAN VÍA KALEAN.—BILBAO

Noizgurako artu emonak (Cuentas corrientes)	2'50	%
Iñiniña zazpi egunetan ez atarateko	3'00	»
Iñiniña iru iiebetian ez	3'50	»
Iñiniña sei iiebetian ez	3'75	»
Iñiniña urte betian ez	4'25	»
Aufezki-kutxa (Caja de Ahorros)	3'50	»